

Huheziko irakasle talde batek glosategi bat sortu du Komunikazioaren gainean

2008/09/28

Mondragon Unibertsitatearen **Huhezi** fakultateko irakasle talde batek wiki bat sortu du, [Glosategia Komunikazioaren gainean](#), eta hor jasotzen hasi da jakintza gai horretan gehien erabiltzen diren hitzak. Glosategiko edukiak irekiak dira.

Informazioa eta Komunikazioa departamenduko kideek sortu dute Glosategia Komunikazioaren gainean, PBwiki plataforman. Wiki horretan dauden hitzak honako atal hauetan daude banatuta:

- Diseinua
- Ikus-entzunezkoak
- Informatika
- Internet
- Kazetaritza
- Komunikazioa
- Komunikazio korporatiboa
- Tipografia

Glosategi bat izan arren, oso erraza da bertan nabigatzea, wiki hau hiztegi baten moduan antolatuta baitago, alfabetoaren hurrenkeran, eta erabiltzaileak orri guztietan izango baitu aukera nahi duen letran klik egiteko.

Glosategi honekin, Huhezik baliabide bat gehiago sortu nahi du, Komunikazioan interesa duten irakasle eta ikasle guztientzat.

